



www.vitoria-gasteiz.org

Aldi baterako kontratazio-zerrenda handitzeko deialdia

Lanpostua: Informazio, kontrol eta oinarrizko mantentzeko agenteak

Ariketa

TEST-GALDERAK

- ***100 galdera***
- ***4 erantzun aukeran***
- ***Denbora, gehienez: 100 min.***

Eredua:

D

Ez ireki esan arte.

- 1.- **Gizarte etxe edo kirol instalazio bateko ikastaro batean izena eman duen pertsona bat, alda al daiteke beste nonbaitera, jarduera bertan behera geratu delako?**
- Ez. Ordaindutako kopuruaren % 100 itzuli behar zaio.
 - Bai, baina lekurik geratzen bada eta zentro berean bada bakarrik.
 - Bai, lekurik baldin bada.
 - Bai, baina lekurik geratzen bada eta prezio bera bada bakarrik.
- 2.- **Adieraz ezazu, Denboraldiko Erreserben Kudeaketa prozedurari jarraiki, noiz argitaratu behar den espazioen okupazioaren behin betiko koadrantea:**
- Ekainaren 30ean.
 - Irailaren 17an.
 - Urriaren 1ean.
 - Urriaren 10ean.
- 3.- **Adieraz ezazu nor arduratzen den entitateek denboraldiko erreserben ordainketa egin duten egiztatzeaz:**
- Informazio eta kontrol agenteak.
 - Erreserbatutako espazioaren ardura duten teknikariak.
 - Administrazio-zerbitzua.
 - Zerbitziburua.
- 4.- **Material hauetatik, adieraz ezazu zein geratzen diren inbentarioaren kudeaketa arautzen duen IMT prozeduratik kanpo:**
- Kirol-materiala.
 - Bulegoko materiala.
 - Argazkigintza-materiala.
 - Eraikuntza-materiala.
- 5.- **Zein urtetan inauguratu zen lehenengo gizarte etxe integratua (instalazio soziokulturalak eta kirol instalazioak eraikin berean)?**
- 1984an.
 - 1989an.
 - 1990ean.
 - 1991n.
- 6.- **Zerbitzu eta ekipamendu hauetatik, adieraz ezazu zein dauden Hegoalde gizarte etxean, baita Ariznabarreko kiroldegian ere:**
- Igerilekua eta kirol-kantxa.
 - Ariketa-gela eta igerilekua.
 - Rokodromoa eta ariketa-gela.
 - Kirol-kantxa eta esgrima-gela.
- 7.- **Adieraz ezazu zenbat egun lehenago egin behar den erreserba, udal sareko antzoki bat erabili ahal izateko:**
- 10 egun lehenago.
 - 15 egun lehenago.
 - 30 egun lehenago.
 - 3 egun lehenago.
- 8.- **Zein gizarte etxetan dago Félix Petite antzokia?**
- Salburuko gizarte etxean.
 - Ibaiondoko gizarte etxean.
 - Lakuako gizarte etxean.
 - Hegoalde gizarte etxean.
- 9.- **Zenbat irauten du liburu baten maileguak, udal liburutegien sarean?**
- 15 egun, eta behin bakarrik berritu daiteke.
 - 15 egun, berritzeko aukerarik gabe.
 - 20 egun, berritze-aldi guztiak barne.
 - 15 egun, eta nahi adina bider berritu daiteke, hamabostean behin.
- 10.- **Adieraz ezazu honako hauetatik zer ezin den egin elkartze-areto batean:**
- Xakean jokatu.
 - Prentsa irakurri.
 - Erabiltzaileek berek eramandako jokoekin jolastu.
 - Antolatutako jardueretan parte hartu.
- 11.- **Zeinek zehaztu behar du instalazio bakoitzaren alde aurreko erreserba baimentzen den?**
- Instalazioen ardura duten sailek.
 - Instalazioko informazio eta kontrol bulegoak.
 - Instalazioaren ardura duten teknikariek.
 - Zentroetako koordinatzaileek.
- 12.- **Zer egin behar dute informazio eta kontrol agenteek, instalazio bat erabiltzeko alde aurreko eskabidea ezarritako epetik kanpo aurkezten bada?**
- Eskatzaileari jakinarazi eskabidea epez kanpo dagoela, eta ez dela izapidetuko.
 - Eskatzaileari jakinarazi eskabidea epez kanpo dagoela, eta inprimakia "epez kanpo" oharrarekin izapidetu.
 - Eskatzaileari jakinarazi eskabidea epez kanpo dagoela, eta erreserba zuzenean egin behar duela.
 - Eskatzaileari jakinarazi eskabidea epez kanpo dagoela, eta eskabidea zonako koordinatzaileari bidali.
- 13.- **Zeinek erantzungo dio eskatzaileari, eta alde aurreko erreserba onartu zaion ala ez esango?**
- Zonako koordinatzaileak.
 - Informazio eta kontrol agenteek.
 - Administrazio-langileek.
 - Ardura duten teknikariek.

14.-Izena emateko modu hauetatik, zein jotzen da zeharkakotzat?

- a) Errepikatzaileak kudeatzeko prozesua egiten denean.
- b) Zozketa egiten denean.
- c) Ikasleen datuen iraulketa egiten denean.
- d) Aurreko guztiak dira zeharkako izen-emateak.

15.-Zuzeneko izen-emateei buruzko baieztapen hauetatik, adieraz ezazu zein den okerra:

- a) Aurrez aurre nahiz internetez egin daitezke.
- b) Ikastarorako izen-ematea lehenagoko inongo prozesutik —zozketa, datu-iraulketa, errepikatzaileak— ez datorrenean egiten da zuzeneko izen-ematea.
- c) Aldi jakin baterako zeharkako izen-ematerik baldin badago, zuzeneko izen-emateen aurretik egin behar dira.
- d) Inolaz ere ezin dira egin jarduera hasi ondoren.

16.-Egiaztapen hauetatik, adieraz ezazu zein ez duen egiten informazio-sistemak modu automatikoan, izen-emate bat egiteko orduan:

- a) Ikastaroan izena emateko gutxieneko eta gehieneko adinaren baldintza betetzen den.
- b) Langabeentzako deskontuak aplikatzen ditu prezioan.
- c) Gurasoentzako euskara-eskolen kasuan, aurreko denboraldiko asistentzia egiaztatzen du sistemak, eta hori aintzat harturik behar den prezioa aplikatzen.
- d) Dena delako pertsona udal instalazioetako abonatu den, edo parekotzat jotzen den egoeraren batean dagoen.

17.-Zein pertsonari ematen zaie baja, ikastaro batean izena eman duten ikasleen iraulketa egin ondoren? Aukera ezazu erantzunik erabatekoena.

- a) Ikastaroan jarraitzeko nahia adierazi ez dutenei.
- b) Abonatu ez direnei.
- c) Aldez aurretik izen-ematea ordaindu ez dutenei.
- d) Jarduerara erregularitasunez joan ez direlako berriro izena emateko eskubiderik ez dutenei, eta kirol ikastaroetan txanda-aldaketagatik izen-emanda daudenei.

18.-Adieraz ezazu aukerarik zuzenena, pertsona batek jarduera jakin baterako ikastaroa hasi ondoren izena ematen duen kasurako:

- a) Zenbateko osoa ordaindu beharko du.
- b) Emateko geratzen diren saioen kopuruari dagokion prezio proportzionala aplikatuko du sistemak.
- c) Monitorearen aurrean identifikatu beharko du bere burua, jardueraren lehen egunean.
- d) Jarduerara sartu aurretik, nahikoa ezagutza edo gaitasun duela erakutsi beharko du.

19.-Zeinek finkatzen ditu zozketen baldintzak eta oinarriak?

- a) Teknikari bakoitzak.
- b) Zentro bakoitzak.
- c) Sail bakoitzak.
- d) Zonako talde bakoitzak.

20.-Adieraz ezazu baieztapen hauetatik zein den zuzenena:

- a) Pertsona bakoitzak izen emate bakarria egin ahal izango du, arreta-txanda bakoitzean, ez baitago zozketak bi pertsona edo gehiagori talde berean lekua esleituko diela bermatzeko modurik.
- b) Gehienez ere lau eskabide apuntatu ahal izango dira jarraian, hurrenez hurreneko zozketa-zenbakiak emateko eta, hartara, pertsona horiek jarduera elkarrekin egiteko aukera handiagoak izateko.
- c) Gehienez ere hiru eskabide apuntatu ahal izango dira jarraian, hurrenez hurreneko zozketa-zenbakiak emateko eta, hartara, pertsona horiek jarduera elkarrekin egiteko aukera handiagoak izateko.
- d) Gehienez ere bi eskabide apuntatu ahal izango dira jarraian, hurrenez hurreneko zozketa-zenbakiak emateko eta, hartara, pertsona horiek jarduera elkarrekin egiteko aukera handiagoak izateko.

21.-Zein ordutatik aurrera egin daitezke ikastarotarako zuzeneko izen-emateak, epea irekitzen den egunean?

- a) Goizeko 08:30etik, bai internetez, bai aurrez aurre.
- b) Goizeko 08:00etatik, bai internetez, bai aurrez aurre.
- c) 00:00etatik, internetez, eta goizeko 08:30etik, aurrez aurre.
- d) 00:00etatik, internetez, eta goizeko 08:00etik, aurrez aurre.

31.-Jarduera-pasea duenak eskubidea du...

- a) Sarbide-kontrol mekanizatua duten instalazio guztietara sartzeko, ordaindu gabe.
- b) Adierazten den instalaziora sartzeko, ordaindu gabe, edozein alditan.
- c) Adierazten diren instalazioetara sartzeko, ordaindu gabe, adierazten diren aldietan.
- d) Zein ikastarotan izena eman duen, horrek dirauen bitartean, eta dagozkion orduetan, zentro jakin bateko sarbide-kontrol mekanizatua igarotzeko.

32.-Adieraz ezazu zein indarraldi eduki dezakeen udalaren kirol instalazioetako aldi baterako paseak: (Erantzunik erabatekoena adierazi)

- a) Urtekoa edo hiru hilekoa.
- b) Bi hilekoa.
- c) Hilabetekoa edo hamabost egunekoa.
- d) Hilabetekoa edo hiru hilekoa.

33.-"Herritarren Udal Txartel ez aktiboa" zirkuntantzia jakin batzuetan bakarrik eman daiteke. Honako hauetatik, aukera ezazu zuzena:

- a) Pertsona batek ezindu bati laguntzen dionean, Herritarren Udal Txartelik ez badu.
- b) Pertsona batek Herritarren Udal Txartela ahaztu badu.
- c) Pertsona batek Herritarren Udal Txartela hondatuta badauka.
- d) Pertsona batek Herritarren Udal Txartela ahaztu badu, eta abonatu bada.

34.-Abonatu ez diren pertsonak, gizarte etxe eta kiroldegietako igerilekuetara sartzeko, sarrera-mota bat atera behar dute, adinaren arabera. Honako sarrera-mota hauetatik, aukera ezazu zuzena den bat:

- a) 25 urtetik beherakoak.
- b) 18 urtetik gorakoak eta 5etik beherakoak.
- c) 18 urtetik beherakoak eta 25etik gorakoak.
- d) 25 urtetik gorakoak.

35.-Instalazioa erabiltzeagatik ordaindu beharreko osagarriari buruzko baieztapen hauetatik, aukeratu erabatekoena:

- a) Instalazioa erabiltzeagatik ordaindu beharreko osagarria ordaindu behar du abonatuak, zuzeneko badminton-erreserba egiten duelarik.
- b) Instalazioa erabiltzeagatik ordaindu beharreko osagarria ordaindu behar du abonatuak, zuzeneko badminton-erreserba egiten duelarik, baldin eta azken hiru hilabeteetan Herritarren Udal Txartela hiru bider baino gehiagotan ahaztu badu.
- c) Instalazioa erabiltzeagatik ordaindu beharreko osagarriari denboraldiko erreserbei aplikatzen zaie, eta abonatu ez direnek ordaindu behar dute.
- d) Instalazioa erabiltzeagatik ordaindu beharreko osagarria ordaindu behar du abonatuak, baina % 40eko deskontua du.

36.-Zuzeneko erreserba baten prezioari buruzko baieztapen hauetatik, aukeratu okerrekoa:

- a) Tenis-pista estali baten zuzeneko erreserbaren prezioa estali gabeko batena baino handiagoa da.
- b) Estali gabeko padel-pista baten zuzeneko erreserbaren prezioa estali batena baino txikiagoa da.
- c) Padel-pista estali baten zuzeneko erreserbaren prezioa tenis-pista estali batena bera da.
- d) Edozein instalazio estaliren prezioa estali gabearena bera da.

37.-Herritarren Udal Txartela kentzeko prozesuaz, ohartarazpenaz eta dossier zigortzailea abiarazteaz dihardugularik, aukera ezazu baieztapenik erabatekoena:

- a) Gizarte Etxe eta Kirol Instalazioen Araudiko arau bat urratzen den guztietan kendu ahal izango da Herritarren Udal Txartela.
- b) Abonatu dela egiaztatzeko balio ez duen Herritarren Udal Txartela badarama baten batek aldean, galarazi egingo zaio sartzeari, eta txartela kenduko.
- c) Edozein arau-hauste egokitzen delarik, udaltzainei deitu behar zaie, identifikazioa eskatzeko, eta kendu egingo da Herritarren Udal Txartela.
- d) Herritarren Udal Txartel baliodun bat titularrak ez beste norbaitek badarama aldean, kendu egingo da, beti.

38.-'Sarrera' edo 'instalazioa erabiltzeagatik ordaindu beharreko osagarria' kontzeptuei gagozkielarik, aukeratu okerreko baieztapena:

- a) Gizarte etxe eta kiroldegietako igerileku estalietarako sarrera behin bakarrik erabiltzeko da (aldi bakarrean, etenik gabe).
- b) BAKHeKO izotz-pistarako sarrera dena delako saio publiko osorako da.
- c) Erabiltzeko uanean bakarrik ordain daitezke instalazioetako sarrerak edo instalazioa erabiltzeagatik ordaindu beharreko osagarria, eta ez aldez aurretik.
- d) Mendizorrotzeko kirol esparruko eta Gamarako parkeko sarrerak —eta instalazioa erabiltzeagatik ordaindu beharreko osagarriak— behin bakarrik erabiltzeko dira.

39.-Baieztapen hauetatik, adieraz ezazu zein den erabatekoena:

- a) Udalaren kirol instalazioetarako aldi baterako pasea hamabost egunerako edo hilabeterako izaten da.
- b) Udako denboraldiko abonamenduak aldi horretan edozein instalaziotara sartzeko aukera ematen du.
- c) Herritarren Udal Txartela nahitaezkoa da 5 urtetik beherakoak (C mota) sarbide-sistema mekanizatua duten kirol instalazioetara sartu ahal izateko.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

40.-Sarbidetako pantaila-bisoreari gagozkiolarik, aukera ezazu baieztapekin erabatekoena:

- a) Sistema mekanizatutik (tornua) sartzen den pertsonaren argazkia agertzen da beti.
- b) Kolore gorriko kodea 18 urtetik beherakoen adinari lotua dago.
- c) Kolore horiko kodea 8 urtetik beherakoen adinari lotua dago.
- d) Kolore urdineko kodea 18 urtetik gorakoen adinari lotua dago.

41.-Adieraz ezazu zein legek arautzen duen pertsona guztiek beren datu pertsonalak kontrolatzeko duten oinarritzko eskubidea:

- a) Toki Jaurbidearen Oinarrien Legea.
- b) Mendekotasun legeak.
- c) Datu Pertsonalak Babesteari buruzko legeak.
- d) Aurrekoetako batek berak ere ez.

42.-Datu pertsonal guztiek babes bera eskatzen al dute?

- a) Ez.
- b) Bai, baina herritarrak eskatzen badu fitxategi berezietan sar daitezke.
- c) Ez, bereizi egiten da: goi-mailako babesa, erdi-mailakoa eta behe-mailakoa.
- d) Ez, ez dago datuak babestu beharrik.

43.-Herritarrak eskubidea al du bere datu pertsonalei buruzko informazioa eskatu eta doan eskuratzeko?

- a) Ez, inoiz ez.
- b) Ez, baina salbuespenak egin daitezke.
- c) Bai, kasu guztietan, Datuak Babesteko Legean jasotzen den datuak eskuratzeko eskubidean oinarrituta.
- d) Bai, baina administrazioak nahi badu bakarrik.

44.-Adieraz ezazu honako hauetatik zein ez den ageri datu pertsonalak babesteko betebeharren artean:

- a) Ez utzi izaera pertsonaleko agiriak fotokopiagailu, inprimagailu edo bestetan.
- b) Hirugarrenek besteren datu pertsonalak ikus ditzatela galarazi —mostradoreetan, mahaietan...—.
- c) Datu pertsonalak dituzten agiriak zaborrontzietara ez bota, aldez aurretik txikitu gabe.
- d) Ordenagailuan ez tekleatu, hirugarrenen aurrean.

45.-Herritarrei laguntzeko bulegoetan herritarrei harrera egokia egiteko arau hauen artean, adieraz ezazu zein den okerra:

- a) Herritarrei ongi etorria emateko eta agurtzeko moldeak finkatu eta aplikatzea.
- b) Informazioa emateko orduan, administrazio-hizkera erabili.
- c) Herritarrei laguntzeko bulegoen dinamikaren inguruko zalantzak argitzen lagundu herritarrei.
- d) Tramitazioan gertatzen diren berrikuntzak aintzat hartu.

46.-Datuen kalitatearen printzipioaren arabera — Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoa—, noiz ezabatu behar da informazioa ordenagailu batetik?

- a) Sortu zenetik 12 hilabete igarotzen direlarik.
- b) Dagoeneko beharrezko ez denean.
- c) Interesdunak hala eskatzen duelarik.
- d) A eta C zuzenak dira.

47.-Datu pertsonalak dira, besteak beste:

- a) Pertsonaren argazkia.
- b) Ideologia.
- c) A eta B zuzenak dira.
- d) Bat ere ez da zuzena.

48.-Aurrez aurreko laguntza ematean:

- a) Adineko pertsona bat bada, ozen hitz egingo diot, oso, ondo entzun diezadan.
- b) Aurrean dudan pertsonak entzuteko moduko ahotsa erabiliko dut.
- c) Ahots egokia erabiliko dut, zain daudenean entzun ez dezaten.
- d) B eta C zuzenak dira.

49.-Pertsona bat etorri zaizu galdezka, horman jarritako kartelean prozedura horri buruzko informazioa ematen dela ohartu gabe. Adieraz ezazu zein den jokabiderik zuzenena.

- a) Kartelean jartzen duena irakurtzeko eskatu, adeitsuki.
- b) Behar duen informazioa eman.
- c) Egoera hori ez da inoiz egokitzen; mundu guztiak irakurtzen ditu kartelak.
- d) A eta B zuzenak dira.

50.-Herritarrei laguntzeko dekalogoaren haritik, adieraz ezazu nola jokatu behar den informazio batek zalantzak sortzen dituen.

- a) Koordinatzailearekin kontrastatu behar dut.
- b) Lankide bati galdetuko diot, berak ere zalantzak dituen, eta bion artean argituko ditugu.
- c) Herritarrari esango diot zalantzak ditudala, eta beste egun batean itzultzeko.
- d) Zalantzak zein udal sailek argitu diezazkidekeen begiratuko dut, eta zuzenean galdetuko.

51.-Udalbatzaren batzorde hauetatik, adierazi zein ez den existitzen gaur egun:

- a) Ingurumen Batzordea.
- b) Pertsonal Batzordea.
- c) Kontuen Batzorde Berezia.
- d) Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Berezia.

52.-Zein da Udal Gobernu Batzarraren buru?

- a) Zinegotzi zaharrena.
- b) Ordezkaritza handiena duen udal taldearen bozeramailea.
- c) Alkatea.
- d) Udalbatzaren batzordeen presidentea.

53.-Honako fundazio hauetatik, adieraz ezazu zeinetan ez duen parte hartzen Gasteizko Udalak:

- a) 5+11 fundazioa.
- b) Kaleidos.Red fundazioa.
- c) Estadio fundazioa.
- d) Gasteizko Arte eta Lanbide Eskola fundazioa.

54.-Zenbat zinegotzik osatzen dute Gasteizko Udaleko udalbatza?

- a) 27k.
- b) 27k eta alkateak.
- c) 31k.
- d) 25ek eta alkateak.

55.-Nork izendatzen ditu alkateordeak, eta kargutik kentzen?

- a) Alkateak.
- b) Udalbatzak.
- c) Gobernu Batzarrak.
- d) Eledunen Batzarrak.

56.-Udal gobernuko zein instantziak onartzen du aurrekontu-proiektua?

- a) Alkateak.
- b) Tokiko Gobernu Batzarrak.
- c) Ogasun eta Udal Administrazioaren Batzordeak.
- d) Ogasuneko zuzendariak.

57.-Udal gobernuko zein instantziak onartzen du lanpostuen zerrenda?

- a) Alkateak.
- b) Udalbatzak.
- c) Tokiko Gobernu Batzarrak.
- d) Funtzio Publikoaren Batzordeak.

58.-Adieraz ezazu zeregin hauetatik zein ez dagokion Udalerriko Gizarte Kontseiluari:

- a) Urteko aurrekontu-proiektuari buruzko irizpena ematea, nahitaez.
- b) Hiriko munta handiko proiektuak eztabai-datzea.
- c) Lanpostuen zerrendari buruzko irizpena ematea, nahitaez.
- d) Udalaren ekimenez proposatzen diren herri kontsultei buruzko irizpena ematea, nahitaez.

59.-Adieraz ezazu udal zerbitzu hauetatik zein ez den Udal Administrazioaren Sailekoa:

- a) Nekazaritza Eremuaren Zerbitzua.
- b) Garbiketa Zerbitzua.
- c) Ustiapen Zerbitzua.
- d) Azpiegitura Zerbitzua.

60.-Adieraz ezazu zein udal sailetan dagoen Artxibo Atala:

- a) Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saila.
- b) Udal Administrazioaren Saila.
- c) Funtzio Publikoaren Saila.
- d) Ogasun Saila.

61.-Adieraz ezazu zein udal sailetan dagoen Aparkaleku Zaintzaren Atala:

- a) Udaltzaingoa.
- b) Trafiko eta Aparkaleku Saila.
- c) Bide Publikoaren Saila.
- d) Herritarren Segurtasunaren Saila.

62.-Non dago Kirol Zerbitzua?

- a) Mendizabalean.
- b) Senda ibilbidean.
- c) Lasarteko atean.
- d) Amadeo García de Salazar plazan.

63.-'Gizarte etxe' izena ematen zaion zenbat eraikin daude Gasteizen, funtzionatzen?

- a) 14.
- b) 13.
- c) 12.
- d) 11.

64.-Gizarte etxe hauetatik, zeinetan ez dago igerilekurik?

- a) Arriagako gizarte etxea.
- b) Salburuko gizarte etxea.
- c) Judimendiko gizarte etxea.
- d) Iparralde gizarte etxea.

65.-Zein gizarte etxetan dago halterofilia-gela?

- a) Lakuako gizarte etxea.
- b) Ariznabarreko gizarte etxea.
- c) Iparralde gizarte etxea.
- d) Aldabeko gizarte etxea.

66.-Adieraz ezazu non ez dagoen futbol-zelairik:

- a) Abetxuku.
- b) Gamarra.
- c) Arriaga.
- d) Astronomoak.

67.-Zein kirol instalaziotan dago xake-gela?

- a) Astronomoetako pilotalekuan.
- b) Landazuriko kiroldegian.
- c) Beti Jai pilotalekuetan.
- d) San Martinen.

68.-Non dago arauzko beisbol-zelai bat?

- a) Gamarran.
- b) Betoñun.
- c) Olarizun.
- d) Inon ez.

69.-Zein kirolariren izena du Jarduera Fisiko Egokiturako Zentroak?

- a) Mainer Unda.
- b) Martín Fiz.
- c) Almuena Cid.
- d) Tania Lamarca.

70.-Besteak beste, zertarako balio du Herritarren Udal Txartelak?

- a) Udal instalazioetako abonatu gisa identifikatzeko.
- b) Garraio publikoa ordaintzeko.
- c) Txanpon-txartel gisa.
- d) Garraio publikoa erabiltzeko, baina autobusak bakarrik.

71.-Gizarte Etxe eta Kirol Instalazioen Araudian epe bat dago finkatua, herritarren erreklamazioei erantzuteko. Zein da epe hori?

- a) 15 egun natural.
- b) 15 egun baliodun.
- c) 30 egun natural.
- d) 30 egun baliodun.

72.-Gizarte etxe edo kirol instalazio batera sartzeko, 18 urtetik gorako pertsona batekin joan ezean, zein adin eduki behar da?

- a) Gutxienez 8 urte.
- b) Gutxienez 6 urte.
- c) Gutxienez 10 urte.
- d) 18 urte eduki behar da.

73.-Hedabideek ba al dute gizarte etxe eta kirol instalazioetara sartzetik?

- a) Bai, beti.
- b) Bai, baina alde zuzenetik baimena eskuratu badute bakarrik.
- c) Bai, programatutako ikuskizun publiko eta kirol txapelketei buruzko informazioa emateko bada.
- d) Ez, inoiz ez.

74.-Esaldi hauetatik, adieraz ezazu zeinek jasotzen duen ongien gizarte etxe eta kirol instalazioetako erabiltzaileek argazkiak ateratzeko gailuak erabiltzearen inguruko araua:

- a) Debekatuta dago aldagela eta komunetan argazkiak egitea, baina bai egin daitezke esparru komunetan, informazio-xedearekin bakarrik bada ere.
- b) Intimitatea babeste aldera, erabat debekatuta dago argazkiak egitea.
- c) Debekatuta dago aldagela eta komunetan argazkiak egitea, baina bai egin daitezke esparru komunetan, irudietan ageriko diren pertsonen baimenarekin.
- d) Bertan inongo pertsonarik ez agertzekotan bakarrik baimentzen da argazkiak egitea.

75.-Kafetegiaz eta makina automatikoez gain, baimentzen al da produktuak saltzea gizarte etxe eta kirol instalazioetan?

- a) Ez da inoiz ere baimentzen.
- b) Ez, salbu eta zentroan bertan egindako produktu artistikoak.
- c) Ez, salbu eta gizarte- eta ongintza-arrazoien bat tarteko denean, udal baimena eskuratzen delarik.
- d) Bai, baldin eta 30 egun lehenagotik eskatzen bada.

76.-Jokabide hauetatik zein dago arau-hauste oso larritzat sailkatua, Gizarte Etxe eta Kirol Instalazioen Araudian?

- a) Istiluak sortzea.
- b) Zerbitzuetara prezio publikoa ordaindu gabe sartzea.
- c) Jarduera edo zerbitzuen arduradunen aginduei jaramonik ez egitea.
- d) Gizarte etxe edo kirol instalazioaren ohiko funtzionamendua eragozteko edo horretarako trabak jartzea.

77.-Jokabide hauetatik zein dago arau-hauste arintzat sailkatua, Gizarte Etxe eta Kirol Instalazioen Araudian?

- a) Jarduera edo zerbitzuen arduradunen aginduei jaramonik ez egitea.
- b) Txartelak manipulatzeko.
- c) Ebakuazio ateak erabiltzea, larrialdietan.
- d) Norberak eragindako kalteen berri ez ematea.

78.-Gizarte Etxe eta Kirol Instalazioen Araudiaren arabera, zeri dagokio 800 euroko isun bat?

- a) Arau-hauste arin bati.
- b) Arau-hauste larri bati.
- c) Arau-hauste oso larri bati.
- d) Ez dago halako isunik.

79.-Gizarte Etxe eta Kirol Instalazioen Araudiaren arabera, nork idatzi behar du zigortzeko proposamena?

- a) Saileko zuzendariak.
- b) Zigortu beharreko jokabidea gertatu zen eraikineko arduradunak.
- c) Saileko zinegotziak.
- d) Zerbitzu juridikoetako buruak.

80.-Adieraz ezazu instalazio hauetatik zein ezin den zuzenean erreserbatu gizarte etxe edo kirol instalazio batean:

- a) Antzokia.
- b) Belar artifizialeko futbol-zelaia.
- c) Ikasgela.
- d) Tenis-pista.

81.-Zein da kirol instalazio baten zuzeneko erreserba egiteko eskatzen den gutxieneko adina?

- a) 12 urte.
- b) 15 urte.
- c) 16 urte.
- d) 18 urte.

82.-Egun bereko zenbat ordutarako egin dezake zuzeneko erreserba pertsona berak, gehienez?

- a) Ordu baterako.
- b) Ordu eta erdirako.
- c) Bi ordutarako.
- d) Hiru ordutarako.

83.- MAE programan instalazio bateko erreserba bat kontsultatzean, lerro bateko testua urdinez ageri da. Zer esan nahi du kolore horrek?

- a) Instalazio horretarako ez dagoela erreserbarik egiterik.
- b) Internetez egin den eta ordaindu gabe geratu den erreserba bat dela.
- c) Baliogabetutako erreserba bat dela.
- d) F8 sakatuz erreserba horri buruzko informazio gehiago ikus daitekeela.

84.-Pertsona batek ezin du izena eman duen jarduera egin, eta ordaindutako prezioa itzultzeko eskatu du. Adieraz ezazu zein den okerra, baieztapen hauetatik:

- a) Arrazoia justifikatu behar du.
- b) Jarduera hasi aurretik eskatu behar du dirua itzultzeko.
- c) Ordaindutakoaren ehuneko 15 atxikiko zaio, kudeaketa-gastuak direla eta.
- d) "Izen-emateen itzulketa" inprimakia bete behar du.

85.-Adieraz ezazu zirkunstantzia hauetako zeinetan ezin den —izaera orokorrarekin— ikasle bat jarduera batetik beste batera aldatu:

- a) Lekurik dagoenean.
- b) Zuzenean izena emateko epea zabalik dagoenean.
- c) Beste sail baten jarduera denean.
- d) Beste zentro bateko jarduera denean.

86.-Adieraz ezazu zein den izen-ematearen dirua itzultzeko epea, arau orokor gisa, kultur edo kirol kanpaina bat bertan behera geratzen delarik:

- a) 10 egun, jarduera bertan behera geratzen den egunetik.
- b) 7 egun, jarduera bertan behera geratzen den egunetik.
- c) Ez dago epe-mugarik, dirua itzultzeko eskatzeko.
- d) Hilabete, jarduera bertan behera geratzen den egunetik.

87.-Instalazioetako giltzen kontrolari buruzko baieztapen hauetatik, adieraz ezazu zein den okerrekoa:

- a) Debehatuta dago giltzen zaintza hirugarren baten esku uztea.
- b) Arau orokor gisa, ez zaie giltzarik utziko zerbitzu teknikoetako langileei.
- c) Alokairu eta lagapenetan, behar dituen giltzak emango zaizkio bere burua arduraduntzat identifikatzen duenari.
- d) Inolaz ere ez zaizkio emango orotariko giltzak inongo zerbitzu-arduradun, begirale edo erabiltzaileri.

88.-Adieraz ezazu, entitate hauen artetik, zeinek ezin duen denboraldi osorako espaziorik eskatu gizarte etxe eta kirol instalazioetan:

- a) Herritar Erakundeen Udal Erregistroan izena emanda dauden elkarteek.
- b) Kirol-federazioek.
- c) Kirol-taldeek.
- d) Pertsona fisikoek.

89.-Adieraz ezazu ordaindu ez direlako etenda geratu diren denboraldiko erreserbak MAE programan baliogabetzea noren ardura den:

- a) Informazio eta kontrol agenteena.
- b) Gizarte etxeetako administrazio-langileena.
- c) Erreserbatutako espazioaren ardura duten teknikariena.
- d) Informatika-teknikariena.

90.-Zein programaren bitartez kontrolatzen da gizarte etxe eta kirol instalazioetako inbentarioa?

- a) MAE programaren bitartez.
- b) Si2 programaren bitartez.
- c) GESTION programaren bitartez.
- d) Excel taula baten bitartez.

91.-Zeini eman dakioke orotariko giltza bat, igerilekuetako sarbide-kontrol mekanizatuak (tornuak) igarotzeko?

- a) Kontrol mekanizatuak igaro behar dituzten guztiei.
- b) Komunzki edo aldian behin kontrol mekanizatuak igaro beharra daukaten profesionaliei.
- c) Informazio eta kontrol agenteei bakarrik.
- d) Igerilekuko sorosleari bakarrik.

92.-Nola jokatu behar da gizarte etxe edo kirol instalazio batean galdutako gauzeekin, baliorik baldin badute?

- a) 15 egunean erreklamatzeko ez badira, birziklatu egingo dira, nolako objektuak diren ere.
- b) Instalazioan edukiko dira hogeita hamar egunez, eta ondoren birziklatu edo ongintza-erakundeei emango.
- c) Instalazioan 15 egunez eduki ondoren inork erreklamatu ez baditu, Udaltzaingoiari emango zaizkio.
- d) Objektu-moten arabera sailkatuko dira, eta Udaltzaingoiari emango, hilabete egiten dutelarik instalazioan, inork erreklamatu gabe.

93.-Adieraz ezazu nola jokatu behar den, lehenik eta behin, pertsona batek galdu duen zerbaitez galde egiten duelarik:

- a) Agiri baliodun bat aurkeztarazi beharko zaio, identifikatzeko.
- b) Bertan dauden objektuak erakutsiko zaizkio, baten bat ezagutzen duen ikusteko.
- c) Fitxan ageri diren datuak eta pertsona horrek egiten duen objektuaren deskribapena alderatuko dira.
- d) Bertan dauden objektuak erakutsiko zaizkio, baina dena delako egunean aurkitutakoak bakarrik.

94.- Noiztik noiz artekoa da gizarte etxe eta kirol instalazioetako asteko diru-bilketa?

- a) Aurreko ostegunetik dena delako asteko asteartera arte.
- b) Aurreko asteartetik dena delako asteko ostegunera arte.
- c) Aurreko astelehenetik dena delako asteko astelehenera arte.
- d) Aurreko ostegunetik dena delako asteko ostegunera arte.

95.-Adieraz ezazu nola jokatu behar duzun aplikazio informatikoak kale egiten badizu eta ezin baduzu harekin saldu igerileku baterako sarrera.

- a) Igerilekua daukan beste instalazio batera bidali pertsona hori.
- b) Barkamena eskatu, eta sartzen utzi ez.
- c) Sartzen utzi, kobratu gabe, erabiltzaileak errurik ez duen zirkunstantzia bat izaki.
- d) Sarrera kobratu, hala ere, eta taloitegiko taloi bat eman.

96.-Adieraz ezazu noiz jasotzen duen bildutako dirua gizarte etxe eta kirol instalazioetatik horretarako izendatutako enpresak.

- a) Arau orokor gisa, asteazken eta ostegunetan.
- b) Arau orokor gisa, ostiral eta larunbatetan.
- c) Arau orokor gisa, astelehen eta asteazkenetan.
- d) Ostiraletan, beti.

97.-Adieraz ezazu zein egoeratan enkargatu dakiokkeen bildutako dirua jasotzeko aparteko zerbitzua horretarako izendatutako enpresari.

- a) Maiztasun jakin bat dago dirua jasotzeko, eta ezin da aldatu, inoiz.
- b) Astean behin jasotzeko maiztasuna duen instalazio batean, 1.200 euro baino gehiago pilatzen direnean.
- c) Hamabostean behin jasotzeko maiztasuna duen instalazio batean, 1.000 euro baino gehiago pilatzen direnean.
- d) Hilean behin jasotzeko maiztasuna duen instalazio batean, 1.200 euro baino gehiago pilatzen direnean.

98.-VEE prozeduraren arabera —gizarte etxeetako ikuskizunetarako sarrera-salmenta—, zenbat sarrera saldu ahal zaizkio, gehienez, pertsona berari?

- a) Lau, salmenta-eragiketa bakoitzean.
- b) Lau, guztira.
- c) Horrelako ikuskizunetan ez dago mugarik.
- d) Aurrez aurre, lau; internetez saltzeko, ez dago mugarik.

99.-VEE prozedurari buruzko baieztapen hauetatik —gizarte etxeetako ikuskizunetarako sarrera-salmenta—, adieraz ezazu zein den zuzena:

- a) Sistemak ez du uzten pertsona berari lau sarrera baino gehiago saltzen.
- b) Salbu eta akatsen bat izan bada, edo ikuskizuna bertan behera geratu bada, ez dago sarrerak itzultzerik.
- c) Dirutan baino ezin da ordaindu.
- d) Internetez eros daitezke sarrerak.

100.- Jarduera hauetatik, adieraz ezazu zein den probableen izen-ematea CCD prozeduraren bitartez —kultur eta kirol kanpainak— kudeatuta egotea.

- a) Txango bat.
- b) Gimnasia-ikastaro bat.
- c) Antzezlan bat.
- d) Txotxongilo-ikuskizun bat.